

ezagutzen al duzu Donostia?

Aliri

Gure hirian baditugu sendi donostiar peto-petoak; beste askoren artean, altzatarak diren Kasares edo Arzak izenak datozkit lehenik burura. Baina sendi donostiar izan eta gainera bere sortetxe edo oinetxean bizitzea oso kasu gutxietan gertatzen da. Hauen artean Aizpurua eta Aliri ditugu Zubieta auzoan. Aizpurua oso historia luzeko etxea izan arren, ez dio Aliririk inbidiarik, bere parekoa baita. Gaur begi bistan dugun *Aliri*, *Aleri* edo *Alli* deitzen dugun etxe ederra XVI. mendean egina izan zen eta garai haie-tatik gaur egunera arte beti etxearen nagusi izan den Aleri sendiak zabaldu eta handitu izan du. Beraz, etxe honek aliritarren 20 belaunaldi ezagutu ditu bere teila-tupean. Aliri oinetxea XVI. mendean kokatzearekin ez dut esan nahi sendi hori orduan sortua denik; zihur



Aliri, Zubieta herriko oinetxea.

zaharragoa dela, antzinago-koa. P. Barrio Pangua jaunak argitaratu zuen 1566. urteko Donostiako erroldan jadanik agertzen da. «Joan Lopez de Aliri» gaur desagerturiko Lambleta kalean bizi zen. Beste «Martin de Aliri» bat, berriz, Pujuelo kalean bizi zen, eta bi kasuetan Zubieta-

ko Aliri etxeko oinordekoak direla dio. Datu interesgarria da baita ere oraindik XIX. mendearen hasieran Trinitate kaleko (gaur Abuztuaren 31) orduko 210. zenbakia «Aliriren Etxea» deitzen zela. 1813. urteko Donostiaren sunsiketaren ondoren, eta aipatutako mendearen erdial-


dera, zenbakia aldatu zioten etxe honi eta 210 zena 22 izatera pasa zen. Pentsatzen dut «Aliri» izena ere garai horietan galduko zuela 22. zenbakiaren sotoetan gaur «Gaztelu» ostatu ezaguna dago.

JOSU TELLABIDE

HERNANIKO JAÏETAN...



AXERI DANTZA



Ezkiaga 5 HERNANI • Tfnoa.: 55 20 07

JUSTO TABERNA

Pintxo eta bokatarik onenak!

Txirrita kalea 15